

SAN PEDRO
FESTAK

27

— 30 **SAN PEDRO**
FESTAK

SAN PEDRO FESTAK 2025 - EKAINA



SAN PEDRO
FESTAK



Bete moila kolorez!

Iritsi dira sanpedroak berriz, eta aurren ere badugu zer ospatu! Berriz ere, herri-eragile eta norbanako ugarik osatutako festa-batzordeak mimoz josi ditu batzuen eta besteen nahiak eta gai izan dira elkar entzuteko, nork beretik uzteko eta herriko festak gutasunetik antolatzeke.

Festa-batzordeko kide guztiei eman nahi dizkiet eskerrak, bihotzez, banan-banan. Ez da erraza inoren aurrean biluzik jarri, besteen iritzia entzun eta elkarrekin gauzak sortzea. Batik bat, ditugun ereduak harresiak eta gatazkak sortzera bultzatzen gaituztenean.

Herri zoragarria da gurea, denetako aukerak eskaintzen dituen; erria, mendia edo hondartza, esaterako. Ez dago bakarra aukeratu beharrik. Denak goza ditzakegu eta, hobe oraindik, bata bestearekin uztartu: Itxaspeko buelta egin eta hondartzan bainatu.

Herrigintzan ere gauza bera gertatzen da: gauzarik ederrenak, magikoenak, elkarren igurtzian sortutakoak dira beti. Ezin konta ahala adibide dugu, eta festa-batzordea da nabarmenetako bat. Bertan, eragile bakoitzak bere habitat naturala utzi eta plazara biltzen da, gainerako eragileekin batera herri hobea egiteko. Jardun kolektibo horrek, gainera, guztiok elikatzen gaitu bueltan.

Plaza da gure bizitza sozialaren erdigunea. Plazan ospatzen ditugu oriotarrok gure festak, eta aurren ere bertan juntatuko gara, elkarrekin, sanpedroak gozatzeko, Pello eta Nikolasa goitik begira ditugula; gainontzekoak elkarren pare dantzatzeko dugu, errespetuz, elkar zainduz eta pozez.

Urtean zehar askotan tokatzen da bi festa, bi ospakizun, batera suertatzea eta aurren Arrantzale Eguna eta LGTBQ+ Harrotasunarena egun berean izango dira. Biak dira garrantzizkoak. Biak osagarri. Beste elkarte eta norbanako guztiak bezala. Aniztasuna ez da onartu beharreko zerbait, baizik-eta ospatzeko motibo eder bat. Ospa ditzagun, beraz, sanpedroak eta bete dezagun moila kolorez!

Anuska Esnal Oliden, Orioko alkatea.

TXUPINAZO
EGUNA

10:30

**JUBILATUEN
HAMAIKETAKOA**

📍 Zaharren Babeslekua

15:00

3X3 FUTBOL-TXAPELKETA

📍 Mendibeltz futbol-zelaia

18:30

**ERRALDOIEN eta
BURUHANDIEN KALEJIRA***
DANBOLIN MUSIKA ETA
DANTZA ESKOLAKO
TXISTULARIEKIN

📍 Kalez kale

* Kalejiraren
ibilbidea:

- Kultur etxea
- Eusko Gudari
- Arrantzale
- Baxoalde
- Palota
- Balea
- Arrantzale
- Abeslari
- Eusko Gudari
- Herriko Plaza

19:00

**MATRAKA
ELEKTROTCHARANGA**

📍 Endaia plazatik Herriko Plazara

20:00

TXUPINAZOA
JARRAIAN, TXOSNEN
IREKIERA

📍 Herriko Plaza

20:15

KONTZERTUA:
OILAR BELTZAK

📍 Herriko Plaza

23:00 - 02:00

GAUEKO EMANALDIAK:
EZTANDA ERROMERIA
eta DJ TRACK-A

📍 Herriko Plaza



EKAINAK 28 LARUNBATA

* Kalejiraren
ibilbidea:

- Kultur etxea
- Eusko Gudari
- Arrantzale
- Baxoalde
- Palota
- Balea
- Arrantzale
- Abeslari
- Eusko Gudari
- Herriko Plaza

ARRANTZALE eta HARROTASUNAREN EGUNA

11:00

**DANTZARI, KANTARI,
MUSIKARI eta ERRALDOIEN
KALEJIRA***

📍 Kalez kale

12:00

SARDIN-JANA

📍 Bi gune: Oteizaren Pietate azpia eta
Endaia Plaza

13:30

**IKUSKIZUNA ETA
OMENALDIA SAREGILEEI
eta ARRANTZALEEI**

📍 Herriko Plaza

14:30

HERRI-BAZKARIA

📍 Herriko Plaza

17:00

**KONTZERTUA:
BIDE BATEZ ERROMERIA**

📍 Herriko Plaza

17:30

**HERIOTZARIK GABEKO
ARRANTZA-TXAPELKETA**

(8-13 urte)

📍 Moila, anbulatorioaren pareta

23:00-05:00

**GAUEKO EMANALDIAK:
KILIKI, DJ LAMIA MARI,
OFENSA eta SIWANABA**

📍 Herriko Plaza

29

SAN PEDRO FESTAK **2025**



EKAINAK **29** IGANDEA

SAN PEDRO EGUNA

06:00

GAUPASEROEN ARGAZKIA

📍 Oa kaleko eskaillerak

10:00

ORIOKO TXARANGA

📍 Kalez kale

11:00

BIZIKLETA-IGOERA

Haurrak:

📍 Herriko Plazatik Pillikura

Helduak:

📍 Herriko Plazatik San Martin ermitara

12:30

MEZA NAGUSIA SALATXO ABESBATZAK KANTATUTA

* Kalejiraren
ibilbidea:



- Herriko Plaza
- Eusko Gudari
- Pelotari
- Iturbide
- Kale Nagusia
- Herriko Plaza

13:00

HERRI-KIROL PARTE-HARTZAILEAK eta PINTXOAK

📍 Herriko Plaza

17:00

HAUR eta GAZTEEN PILOTA-PARTIDAK

📍 Frontoia

18:00

ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA* DANBOLIN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO TRIKITILARIEKIN

📍 Kalez kale

19:00

SOKA-DANTZA, eta JARRAIAN, DANBOLIN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO BANDAREN EMANALDIA

23:00 – 02:00

GAUEKO EMANALDIAK: ALARMA MOREA, DJ LA FULANA eta DJ TROTI

📍 Herriko Plaza

30



EKAINAK 30 ASTELEHENA

SAN PEDRO BIGARRENA

10:00

BIZIJOLAS HAURRENTZAKO JOLASAK

(2-10 urte)

📍 Muntoko berdegunea

10:30

I. SAN PEDRO ERRONKA TALDE-JOLASAK ETA BAZKARIA

(10-14 urte)

📍 Herrian barrena

14:00

70 URTETIK GORAKO ORIO TARREN BAZKARIA

📍 Villa Antilla hotela

19:00

KONTZERTUA: OLD GLASSES

📍 Herriko Plaza

SAN PEDRO FESTAK 2025

ANTOLATZAILEAK

Orioko Udalarekin elkarlanean festak antolatzen parte hartu duten eragileak: San Pedro jai-batzordea, Zaragueta Herri Eskola, Orioko Herri Ikastola, Orioko Erraldoiak, Danbolin Musika eta Dantza Eskola, Oriyoko Pakak, Saregile, Txosna-batzordea, Arrantzale Egunaren talde-eragilea, Orioko elkarte gastronomikoak, Muskuilu-Harri elkarte, Gazteon Ahotsa, Orioko Txaranga, Aldapa txirrindulari-taldea, Salatxo Abesbatza, Orioko Parrokia, Orioko AEK, OSPELE Orioko Euskal Pilota Kluba, Harribil Dantza Taldea, Txurrumuski Orioko Kultur eta Aisialdi Gazte Elkarte, Zaharren Babeslekua, Etxeluze Gaztetxea eta Orioko Arrantzaleen Kofradia.



EKAINAK 26: PREZIO BEREZIA BARRAKETAN

Barrakek 1,5 euroko prezioa izango dute egun osoan, AFADE eta Orioko Udalaren arteko hitzarmenari esker.



ZARATARIK GABEKO UNEAK

Egunero zaratarik gabeko bi ordu izango dira barraketan, bereziki, heziketa-premia zehatzak dituzten haurren inklusioa errazteko: 11:30etik 12:30era eta 17:00etatik 18:00etara.

PUNTU MOREA

Orioko Udalak ez du onartzen inolako eraso sexista, homofobo, transfobo eta arrazistarik. Ekainaren 27, 28 eta 29an Puntu Morea jarriko da turismo-bulegoaren parean, 23:00etatik 02:00etara, herritarrei informazioa emateko.

ERASO MATXISTARIK EZ!

